

# Toponimia Nafarroan

Mikel Belasko



Toponimia lanak Nafarroan, batez ere, 1985 eta 1995. artean burutu ziren. Garai horretakoak dira bai toponimia nagusiari buruz (herri izenak) eta toponimia txikiari buruz (mendi, erreka eta gainerako parajeen izenak). Horiei esker Nafarroako leku izenak modu zientifiko eta egokian bildu ziren eta horren ondorioz forma normalizatuak ofizialdu ziren. Liburuak argitaratu ziren egindako lanen emaitzak erakusteko eta webgune bat ere zabaldu zen bildutako informazio horrekin.

Azken hamar urteotan, berriz, nabarmen apaldu da alor honetan egindako esfortzua eta gaurko egoera duela hamar urteko bera esan daiteke.

## 1.- Nafarroan egindako biltze saioak

### 1875-1936

**Asociación Euskara de Navarra-Euskara Elkargoaren** eraginez hainbat ekimen aurrera eraman nahi izan ziren. Iruñeko udalarekin batera, esate baterako, ikerketa lanak bultzatu ziren baina arrakasta handirik gabe. 1882-1886 urteetan toponimia lehiaketak antolatu baziren ere inork ez zuen lanik aurkeztu. 1915. urtean Artuko Kanpionek iritzi artikulua garrantzitsua idatzi zuen "A los vascos de buena voluntad". Bertan toponimia lanei akuilu ematen zitzaien eta ikerlarien kontzientzia piztu nahi zen. Oraingo honetan ekimena arrakastatsua suertatu zen eta zenbait ikerlari lanean hasi ziren. Adibide gisa aipatuko dugu lerro hauen egilearen birraitonak, Teodoro Arburua euskaltzain urgazleak, 1915. urtean eskuratutako 25 pezetetako saria Etxalarko toponimiari buruz egindako ikerketarengatik.

**Eusko Ikaskuntza**ren ekarpena handia izan zen. "Sociedad de Estudios Vascos-Eusko Ikaskuntza" sortu eta berehala hasi zen Nafarroan lehendabiziko toponimia biltze saio sistematikoa 1918an. Luis de Eleizalde Brenosa (1873-1923) izan zen kanpainaren bultzatzaile handiena. 1919an erabaki zen udal guzietara zirkularra bidaltzea "landetako dermio guzien izen-zerrendak" bidaltzeko eskaka, "Euskaltzaindiak Altxor preziatu hori euskararen ikerketa toponimikorako erabil dezan". (Nafarroako A.O., 19. zk.). Luis de Eleizaldek bidalitako materialetatik euskarazkoak aukeratu, ortografiaz egokitu, eta "Listas

alfabéticas de voces toponomásticas vascas" agertu ziren RIEV (1922-1930) eta BRSVAP (1963-1974) aldizkarietan.

**Aurreneko kanpaina hauen ezaugarriak** honakoak izan ziren:

- A) Helburu bakarra Euskarazko toponimia biltzea zen.
- B) Erantzuna eta edukia irregularrak ziren, inoizka eskasak eta badaezpadakoak oso.
- C) Mapazko euskarririk ez zuten.

### 1936-1985

Espainiako azken Gerra zibilak aurreko garaiko garapena eten egin. Ondoren bestelako ikerketa batzuk burutu ziren eta nabarmentzekoak dira izen hauek: Jose Migel Barandiaran (eta berak moldatutako "Inkesta Etnografikoa"), Julio Caro Baroja, Joan Coromines, Justo Gárate, Luis Mitxelena, Antonio Tovar...). Nafarroan sortu ziren aldizkari espezializatuak ikerlari hauen bilgune bihurtu ziren. Horrela 1940ean sortu zen *Príncipe de Viana*, eta 1969. urtean sortu ziren *Fontes Linguae Vasconum* eta *Cuadernos de Etnología y Etnografía Navarra* aldizkariak ikerketa garrantzitsu asko argitaratzeko aukera ekarri zuten.

**Bigarren aldi honetako ezaugarriak aipagarrienak** hauek izan ziren:

- 1) Hizkuntza kontuan ikerketa zabalagoak ziren eta euskarazko materialetara ez ziren mugatu.
- 2) Egitasmoak eta burutzeak bakarkako lana izan ziren, batez ere Barandiaran etnografiaren alorrean izan zena bezalako pertsonalitate hotsemaile baten faltagatik.
- 3) Ikerketaren metodologi irizpideetan eta helburuetan batasun falta.
- 4) Mapagintzari inportantzia gutxi ematea.

### 1986-2007

***Onomasticon Vasconiae***. Toponimia ikerketak Euskal Herri osoan eta irizpide eta metodologia zientifikoekin egiteko, Ramon Ciérbide Martiñenak, Gasteizen Euskal Herriko Unibertsitatearen katedratikoa denak burutan hartu zuen materialak sistemaz bildu eta corpus batean argitaratzeko ideia, "Onomasticon Vasconiae" deritzana, alegia. Euskaltzaindiak proiektua onartu zuen eta bere babespean hartu zuen. 1986an hasi zen gauzatzen Jose María Jimeno Jurío-k burututako lehenengo maisu-lanekin (Iruñerriko hainbat herritako ikerketak). Jadanik hogeita bost etorri zaizkio ondotik 7 ale Nafarroari zuzenean dagozkiola.

Nafarroako herrien izendegia

***Nafarroako Herri Izendegia***. Nafarroako euskararen legeak aginduta, Nafarroako Gobernuak txostena jaulki zezala eskatu zion Euskaltzaindiari Nafarroako Herrien Euskarazko izenei buruzkoak (1987). Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeak banan-banan ikertu zituen toki-izenok eta horren araberrako erabakiak hartu zituen. Horretarako dokumentaziotik hartutako izenaren aldaerak, hasi erdi arokotik eta gaur egungoraino, urtea eta iturria aipatuz (artxiboa, bibliografia, gaurko ahozko inkesta) aztertu ziren. Zerrenda horiek Euskaltzaindiaren Batzarrari eman zitzaizkion oneskizun. Datuak eta zerrendak Nafarroako Gobernuak argitaratu zituen Nafarroako Herri Izendegia izeneko liburuan, eta han emandako gomendioen arabera ofizialdu ziren Nafarroako eremu euskalduneko herri izen guztiak eta gainerako eremuetako izen bakan batzuk.

**Nafarroako toponimia eta Mapagintza (1990-1995)**. Nafarroako Gobernuak, ikusirik zer garrantzia zuen toponimiaren azterlana gogo egin zuen toponimia xehea bildu eta mapagintzan islatzeko lana hasteko. Hartarako "Trabajos catastrales S.A."rekin hitzarmen bat egin zuen eta proiektuaren helburu nagusiak hauek izan ziren:

A) Nafarroako lurralde osoan erabilera bizia zeukan toponimiaren altxor historiko-linguistikoa salbatzea.

B) Euskaltzaindiak eman hizkuntz arauen arabera toponimia tratatzea.

C) Nafarroako Gobernuaren mapa eta argitalpenetan gauzatzea.

D) Kanpainan zehar bildutako materialekin ikertzaileentzako fondo bat eratzea.

Nafarroako Gobernuak "Trabajos Catastrales, S.A." enpresarekin egindako hitzarmenaren ondorioz, lurraldeko herri eta inguruetakoko toponimo guztiak jaso ziren, eta medio zientifikoak erabiliz espezialista talde batek lau urtetan burutu zuen lana (1991-1994). Ahalegin honen emaitzak *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza. Toponimia y Cartografía de Navarra* bilduman argitaratuz joan dira. 1992an hasi zen bilduma honek Nafarroako herri guztietako dermioen zerrendak eman nahi ditu, bakoitza bere mapan kokaturik. 59 liburu argitaratu ziren, azkeneko 9 aleak 1998-1999 urteetan argitaratu zirelarik.

**Nafarroako Toponimia Ofiziala.** Geroztik 1997-98 urteetan Nafarroako euskararen kontseiluko toponimia batzordeak 1987an erabilitako irizpideak finduz eta dokumentazio berriaz baliatuz herri guzien euskal izenak finkatu zituen eta Nafarroako Toponimia Ofiziala izeneko liburuan argitaratu zituen. Orduetik hona ofizialdu diren izenak han emandako irizpide eta gomendioen arabera aurrera atera dira.

**Gaur egun,** Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak toponimiari buruzko aholku zerbitzua eskaintzen du. Zerbitzua irekita dago bai Nafarroako Gobernuaren departamentuentzat eta baita gainerako erakunde eta eragile pribatuentzat ere.

## 2.-Toponimiaren ofizializazioa.

**Marko legala.** Hurrengo lerroetan toponimiaren erabilera arautzen duten lege eta aginduen berri emanen da. Hau egitea funtsezkoa da Nafarroako toponimian gertatu diren aldaketak ongi ulertzeko eta kokatzeko. 1986ko Euskararen Foru Legea espresuki arduratu zen Nafarroako toponimiaz, eta hortik aurrera, aipatu legean oinarrituta, zehaztuz joan da Nafarroako toponimia, hainbat eta hainbat lekutan euskal grafiak ofizialduz. Dena den aitortu behar da gertatu diren aldaketa guztiak ez daudela euskararekin lotuak, bestelakoak ere badira, Toki Administrazio Foru Legeak arautzen duenez. Goian esandakoa kontutan hartuz lehenbizi Euskararen Foru Legea aztertuko da, eta ondoren Toki Administrazio Foru Legea.

### **Nafarroako Euskararen legea, 8. artikulua**

1. "Foru Komunitateko Toponimoek bai euskaraz eta bai erdaraz izanen dute forma ofiziala, honoko arauetara jarraituz:

a) Eremu euskaldunean izen ofiziala euskaraz izanen da, non eta erdarazko izen diferenterik ez den, zeren horretara biak erabiliko baitira.

b) Eremu misto eta erdaldunean, izen ofiziala orain arteko berbera izanen da, non eta erdaraz adierazita dagoenaren aldean beste izen bat ez dagoen, diferentea, jatorrizkoa eta tradizionala, zeren horretara biak erabiliko baitira

2. Nafarroako Gobernuak, Euskaltzaindiaren aurretiko txostenari kasu eginik, finkatuko du Foru Komunitateko toki izenek nola behar duten, eta bai ere lurraldeen, populazio guneen eta herri arteko bideen izenak ere, eta Parlamentuari eman behar dio horren berri. Herrietako bideen izenek nola behar duten bertako udalak finkatuko du.

3. Gobernuak erabakitako izenak, aurreko ataletan xedatu denaren arabera, legezko

bakarrak izanen dira Foru Komunitateko lurraldean eta errotulazioa haien arabera egin beharko da. Nafarroako Gobernuak ageriko errotulazioaren normalizazioa arautuko du, beti ere Estatuak on iritzia dien arau nazioartekoak errespetatuz.

**Ondorioz**, Nafarroako Gobernuak kompetentzia osoa dauka bai herri izenak eta baita toponimia txikia ofizialtzeko. Kale izenak eta etxe izenak, berriz, udalen kompetentzia dira.

#### **Nafarroako toki-administrazioari buruzko foru legea. 22. artikulua.**

Udalerrien izenak aldatzeko Udalek hartutako erabakia beharko da, aurretik, gutxienez hilabete bateko informazio publikoa egonda. Udal erabakia Foru Komunitateko Administrazioari igorri beharko zaio, Nafarroako Gobernuak onespina eman diezaion, eta hau emandakotzat hartuko da hilabete baten barnean ebazpenik suertatzen ez bada.

#### **Nafarroako toki-administrazioari buruzko foru legea. 23. Artikulua**

Udalen izen aldaketek ofizialtasun izaera lortuko dute, apirilaren 2ko, Eraentza Lokaleko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 14. artikulua aipaturiko Erregistroan apuntatu eta Estatuak eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALETan argitara eman ondoren bakarrik.

#### **Nafarroako toki-administrazioari buruzko foru legea 25. artikulua**

Udalerrien izen eta herriburuen aldaketaren gaineko Udalen erabakiak, Bilkura Osokoak hartu beharko ditu, bildutakoen bi herenen aldeko bozketarekin, eta beti ere, udalbatzako kideen kopuru legalaren gehiengo absolutuarekin. Udalerrietako izen eta herriburu aldaketaren gaineko ebazpenak Estatuak Administrazioari igorriko zaizkio, Entitate Lokalen Erregistroan inskribatuak izan daitezten. Azkenik, kontzejuen izen aldaketak udalentsat ezarritako arauetara lotuko zaizkie (2.kap, 1. atala, 37.3 artikulua)

**Ofizializazioa eta toponimia nagusia.** Guretzat toponimia nagusia da udalerrri, kontzeju eta Nafarroako Izendegian agertzen diren toki-entitateen izenen multzoa. Horiei gehituko zaizkie herrialdearen izena eta ibar eta eskualde historikoen izenak. Hots, entitate administratiboen izenak.

Eremu euskaldunetan urtarrilaren 19ko 16/1989 Foru Dekretuan aipatu eskualdeko toponimia nagusiaren izendapen ofiziala finkatu zen. Honi lotu behar zaio 1994ko apirilaren 20an argitaratu zen 1989ko dekretuari zegokion akats zuzenketa.

*16/1989 Foru Dekretua, urtarrilaren 19koa, Nafarroako eremu euskalduneko toponimia nagusiaren izendapen ofiziala finkatzen duena. (N.A.O. 13.zk, 89-I-30)*

*Artikulu bakarra: Foru Dekretu honetako eranskinean aipatzen den Nafarroako eremu euskalduneko toponimoen izendapen ofiziala legezkoa izanen da ondorio guzietarako Foru Komunitatean.*

Aipatu eranskinean eremu euskalduneko toponimo berri ofizial guziak zerrendatzen ziren.

Gainerako eremuetan udalek abiarazi behar dute ekimena. Ikusi hemen eremu hauetan hartu diren erabakiak eta gaurko izen ofizialen egoera:

<http://www.cfnavarra.es/ESTADISTICA/redie.asp?qry=0204>

Izen ofizial berri hauen erabilera arautzeko foru dekretu bat argitaratu zen. Horren ondorioz eremu euskalduneko izen bikoitzak zati ezinak dira eta izen bakarra osatzen dute Doneztebe/Santesteban eta gainerako eremuetako izen bikoitzak hizkuntzaren arabera erabiliko dira: Pamplona <> Iruña. Hots, Pamplona gaztelaniaz erabiliko da Iruña aipatu gabe, eta Iruña euskaraz Pamplona aipatu gabe.

270/1991 FORU DEKRETUA, irailaren 12koa, Euskarari buruzko Foru Legearen babesean, Foru Komunitateko Administrazioaren organoek Nafarroako Gobernuak onetsitako izen ofizialak nola erabili arautzen duena. (N.A.O. 136.zk, 92-XI-25)

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 8. artikulua xedatzen du Foru Komunitateko toponimoek erdaraz eta euskaraz izanen dituztela izen ofizialak, bertan adierazten diren arauak jarraituz, Foru Legean ezarritako eremuen arabera.

Abenduaren 20ko 338/1990 (1991.eko urtarrilaren 9ko 4 zenbakidun Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALa) eta ekainaren 13ko 229/1991 (1991.eko ekainaren 26ko 80 zenbakidun Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALa) Foru Dekretuek, Nafarroako Foru Komunitateko hiriburuaren eta Lizarra eta Gares herrien legezko izen ofizialak, hurrenez hurren, ezartzen dituzte.

Aipatu Foru Dekretuetan adierazitako izenak libreki erabiltzeko eskubidea dagoenez, beharrezko da irizpide orokor bat ezartzea, Foru Komunitateko Administrazioaren organo guztiek izen horiek nola erabili arautuko duena, aipatu izenen arautu gabeko erabilera administrazioan sortutako eragozpenak baztertzeko.

Nafarroako Gobernuak mila bederatzehun eta laurogeita hamaikako irailaren hamabian egindako bilkuran hartutako Erabakiaren ondorioz eta bat etorritz,

**DEKRETATU DUT:**

Artikulu bakarra.-Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren babesean, Nafarroako Gobernuak onetsitako izen ofizialez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren organoek egin beharreko erabilera, irizpide hauei jarraituko zaie:

-Erdaraz idatzita doazen administrazio jarduketara guztietan, bi izen ofizialetatik, hizkuntz horri dagokiona izanen da erabili beharrekoa.

-Euskaraz idatzita doazen administrazio jarduketara guztietan, bi izen ofizialetatik, hizkuntz horri dagokiona izanen da erabili beharrekoa.

**Ofizializazioa. Toponimia Txikia.** Toponimia txikia ere Nafarroako Gobernuaren kompetentzia da eta hori dela-eta era honetako toponimia guziaz ofizialdu da hainbat foru dekretutan. Hauetako baten edukia ekartzen dugu hona:

1: 149/1991 FORU DEKRETUA, apirilaren 18koa, Nafarroako zenbait herritako Toponimia Xehearren izendapen ofiziala finkatzen duena. (N.A.O. 67. zk, 91-IV-29)

1. artikulua. Artaxoa, Atetz, Barañain, Barillas, Beraskoain, Burgi, Zizur, Galar, Txulapain, Monteagudo, Oltza, San Martin Unx, Tafalla, Tulebras eta Bidaurretako Toponimia Xehearren izendapen ofiziala onestea. Izendapen bakoitza bere udalerriari dagokion liburuan agertuko da, liburu horien eginbideak Lehendakaritza eta Barne Kontseilariak egin dituelarik.

2. artikulua. Onetsitako izendapenak legezkoak izanen dira ondorio guztietarako.

**Ofizializazioa. Hiri toponimia eta etxe izenak.** Alor honetan udalek dute kompetentzia osoa eta Nafarroako Gobernuak aholkuak ematera mugatzen da. Sarri itzultzeko gomendioak izaten dira soilik. Egia da urte hauetan herri askok eskatu dutela beren kale-izenen euskal itzulpena. Eskakizun horri erantzuteko Unibertsitatearako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak kale-izenak itzultzeko arauak prestatu zituen. Arauak honako herri hauetan erabili izan dira: Altsasu, Atarrabia, Auritz, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Deikaztelu, Eneritz, Espartza Zaraitzu, Etxauri, Ezkabarte, Ezkaroze, Galoze, Gares, Iruña, Jaurrieta, Noain (Elortzibar), Oibar, Oltza Zendea, Otsagabia, Zizur Nagusia, Ubani, Galar zendea... Gauza bera dugu etxe izenen alorrean eta hemen aholku txostenak prestatu dira hainbat udaletarako: Ultzama, Anue, Lantz, Imotz, Basaburua, Baztan, Eugi, Garralda, Galoze, Ezkaroze... Aipatu arauak *Nafarroako Toponimia Ofiziala* izeneko liburuan argitaratu dira.

### **3.-Toponimiaren zabalkunderako eratutako tresnak**

### **Liburuak**

- Nafarroako toponimia eta mapagintza liburu bilduma: 60 ale.
- Nafarroako Toponimia Ofiziala liburua.

### **Internet**

- Nafarroako toponimia ofiziala: <http://toponimianavarra.tracasa.es/>
- SITNA: <http://sitna.cfnavarra.es/navegar/>
- Katastroa: <https://catastro.navarra.es/servicios/default.aspx>

### **Kartografia**

- Nafarroako kartografia ofiziala
- Instituto Geográfico Nacional
- Argitaletxe pribatuak

## **4.-Etorkizunerako proiektuak**

**Nafarroako Toponimia Batzordea.** Gisa honetako batzordea osatzea eta abiaraztea garrantzitsua litzateke toponimia lanei segida eta babesa emateko:

- Biltzen diren izen berriak normalizatzeko eta ofizialtzeko
- Galtzen direnak arautzeko
- Aldaketak kudeatzeko
- Gobernua- Euskaltzaindia-erabiltzaileak koordinatu

### **Ikerketa gehiago.**

- Etxe eta kale izenak

**Aholkularitza eta mantenimendu lanak.** Toponimia ongi erabiltzeko eremu publiko eta pribatuan.

## **5.- Izandako harrera**

Oro har, oso ona izan da. Bai toponimia nagusiari dagokionez, eta baita txikiari dagokionez ere, izendapen ofizialak espantu guztietan erabiltzen dira: bide seinaleetan, aldizkari ofizialetan, prentsan, kartografian, testu liburuetan... Beti ere Euskararen Legeak arautzen duenaren arabera.